

GIZARTEA

IKASTAROAK → CEDERNAREN ESKUTIK DONEZTEBEN

Dinamizazioaz eta turismoaz enplegu-tailerra lantzen ari dira

Azaroan hasi eta apirilera bitarte ari dira 15 lagun

TTIPI-TTAPA

Komunitate-dinamizazioari eta turismoa suspertzeari buruzko enplegu-tailerra lantzen ari dira Donezteben. Enplegu-tailerra azaroan hasi zen, eta 2012ko apirilera arte luzatuko da. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bitartez bultzatutako eta finantzatutako prestakuntza eta enplegu-tailerra da, Cederna Galarur Elkarteak sustatua, eta Espainiako Enplegu Zerbitzu publikoaren eta Europako Gizarte Funtsaren baterako finantziarioekin. Bidasoako lau toki-erakunde babesten dute (Doneztebe, Lesaka, Baztan eta Bera), eta Prestakuntzarako, Birziklapenerako eta Enplegurako Nafarroako Institutuko Sustapen eta Ga-



rapen Unitatearen aholkularitza teknikoak du.

Eremuko 15 lagun prestatzen ari dira komunitate-dinamizazioaren eta turismoa suspertzearen inguruan. Asmoa da, prestakuntza bukatzerakoan, gaitzatea kultura eta turismo-proiektuak dinamizatzeke eta kudeatzeko, eta aukera izatea lan-merkatuan txertatzeko turismo eta kul-

tura lantzen dituzten enpresen edota tokierakundeekin bitartez.

Prestakuntzak irauzen dituen sei hilabete horietan, enplegu-tailerreko ikasleek zenbait prestakuntza ikagai jasoko dute, hala nola Komunitatearen dinamizazioa (Metodologia, teknika eta tresnak, elkarrekin sostengua, eta turismoa suspertzea (turismoa suspertzeko

proiektuak, aisia-egoratan daudenen artean taldeak sortzea eta dinamizatzea, jolas-jarduerak eta jardura fisikoak eta ludikoak turismo-animazioan, eta tailerrak eta kultur jarduerak turismoa eta jolasak suspertzeko).

Parte hartzen ari diren ikasleek praktikak egiten dituzte hainbat erakunde, elkarte, eta abarretan.

LANA

1.200

langabeteekin hasi da urtea

TTIPI-TTAPA

2011. urte bukaeran 1.200 langabetu zuden Doneztebeko Enplegu Bulegoan izen emanak, azaroan baino 54 gehiago (%4,71ko igoera) eta 2010eko abenduaren 31n baino 70 gehiago. 2011ko abenduko gorabeherak kontuan hartuz, 327 kontratu egin ziren Doneztebeko Enplegu Bulegoaren bitartez, horietatik 35 bakarrik mugagabeak.

2011KO DATUAK

2010. urtea 1.130 langabeteekin bukatu ondotik, 2011ko urtarrilean 83 lagun gehiago ziren langabezian, 1.213. Otsailean 1.215era igo zen; martxoan 1.198 (-17); apirilean 1.148 (-50); maiatzean 1.110 (-38); ekainean 1.046 (-64); uztailean 1.071 (+25); abuztuan 1.095 (+24); irailan 1.101 (+6); urrian 1.117 (+16); azaroan 1.146 (+29) eta abenduan 1.200 (+54).

ANTXITONEA
Trinketea



24 logela bainuarekin · Aparkalekua
Aire girotua gela guztietan · Hari musikala eta TB
Gela berezia sukalde eta hotel zerbitzuarekin



Braulio Iriarte 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853
hostal@antxitonea.com • www.antxitonea.com

ANZABAL INMOBILIARIA



- Zurich Aseguruak Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria Baserri, borda, pisu, etab... salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T/F. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com